

senditzen ginuen kartsutasun ixil bat hunen inguruan, eta bertzean kuriostasun gehiago. 1835-ean da ruso-literatura goi-mailera heldu hunekin, eta geroztik, 80 urtez, sortu dira Gogol, Tourgeniev, Dostolevski, Tolstoy eta bertze zonbat. Moskuko ikasle batekin hizketan arats batez konprenitu dugu Lenin posible izan zela, parte handi batenz, hauengatik. Sobietismoa gehienetan errusitasuna zela: «Beti ingelesez, noiz ikasiko duzute rusoa» erraiten zaukularik.

Gero Japonian harriturik gelditu ginen, xilatu ginuelarik, zer urgulua eta zer lanak eskatzen zazkoten beren kulturak. Japonesez idazteko apur bat, Batxilleraino egiten dituzte idazketako eskolak (2.000 letra-seinale edo karakter dazkite orduan) eta ongi idazteko 6.000 edo 7.000 jakin behar dira (25.000 direlarik japonesez karakter guztiak).

Hauk oroitaraziz, erran nahi dut kultura, euskal kultura zimendutzat ezarritzeko, abiatzeko zure herriaren salbazioa orai egiten dugun baino aise ta aise indar gehiago behar dugula egin, euskaldunek, bereziki euskararentzat. Huntan sobera optimista iruritzen zaut nere adiskide: euskal kultura aipatzen du, «den» gauza bat bezela, ebo-luzioa eta egitekoa aipatu ere gabe.

Bestalde, etsenplu hainitz hartzen balin baditu ere Hego aldean (eta nun har lezazke bestela?) euskal batasunaz guti erraiten du. Eta hau gabe, euskal kulturarik posible doa? Bide hortan, lehen bai lehen egiteko den gauza: bere liburu euskaraz itzultzea.

Bigarrenik, gure zibilizazioa krisa harrigarrian dago. Seinaletarik bat, Japoniako «zen-gakuren» ikasleetan lehenik (askok, Berkeley-en gertatu zela uste izanikan ere) agertua, Frantzia, Maiatzeko gertakarietako Unibertsidadetik kaleratua. Deituko dut kultura eta ekonomiaren burruka: hobeki erraiteko kulturazaleek, ekonomizaleengandik errefusatzen duten buruzagitza eta alienazioa.

Huni begiratzeko indar handia du liburu hunek. Haatik hemen ere, ni beldur, Ipar aldeko ikasleek ez dutela guti baizik parte hartu Maiatzeko ideien harat hunatetan. Optimista agertzen da hemen ere nere adixkidea. Aita Charritton-ek ere, dion bezela, nere ustez, Hego aldean izan dezake Herriko Batasunak arrakastarik haundiena.

Horrengatik merezi luke liburu hunek asko zabaltzea.

Idazleak denak gomititzen ditu beren ikusmoldea gauza hortaz, berari hel araztera. Segur, erantzun asko merezi du, gain gainetik interesanta baida argitzen duen bidea, eta, bixtan dena, euskal etorkizunarentzat premiatsugarrenentarik.

Idazlearen zuzenbidea: B. Laxague, 64 Aldudes (France).

RAMUNTZO CAMBLONG

BERNAT DECHEPARE: *Olerkiak*

«Txertoa Sorta». Ediciones Edili. San Sebastián, 1968.

Bernat Detxeparek idatzi eban olerki sorta liburuaren bederatzigarren argitaraldia da hau. Horretan gagoz behintzat. Zazpi argitara-aldikoen aleak ezagutzen geinuzan, eta bat bakarra lehenengokotzat daukagun 1545-garrenekotik. Denbora asko ez dala jakin dogu, beste bat be egin zala Erroanen, hemengoaren alerik orainarte agertu ezpada be.

«Txertoa» sorta barriaren lehenengoko liburua da Detxepareren hau. Mitxelena irakaslearen hitzaurre luze ta sakon bategaz agertzen da oraingo argitaraldia. Ba dauko lodi-betetasuna «Sarrera gisa» honek, eta irakurgarria da benetan. Utsik eta gaitzerik ez daukon saioa da. Euskal Jakintzeagaz zer ikusi haundiak daukoan gaiak ikusten dauz. Gure literatura zaharraz eta gaurkoaz, esaten ditu bereak. Astiro astiro irakurri ta gogoan artzeko hitzaurrea da; Mitxelenaren beste saio bat baino geiago be holakoxeak dira: ondo ausnartu eta gogorakizun-bideetan iminten geituanak.

Textu zaharra oraingo ortografi barriari Aita Akesolok iminita dator gero, puntu eta ganekoak bear dan moduan orniduta. Hori, eta gaztelerara Aita Liñek berak egin daben itzulpena, ezker-eskuma batera datoz. Eta Rene Lafon irakasleak Frantziako erderara egin daben biurtzea dator, azkenez. Eun eta farogeta amasei horrialde, aurkibidea kanpora, oso dotore eta alegin aundiagaz irartuta Valverde. Zazpi koloregaz eginiko apaingarri bat arpegi-azalean: Zumeta egile.

Mundu guztiko jakintsuen eskuetara joango da argitaraldi hau, daroazan itzulpeni eskerrak Ordua da, kanpoerrietako iritzi-emoteileen aurrean itzulpen onakin iminteko gure literatura dana, lengoa eta oraingoa, edo lanik onanak bai behintzat.

Itzulpenen bidez egin bear doguna da hori. Gure artekoak Detxepareren ganean zer esan dabeen badakigu: Urkijo, Schuchardt, Van-Eys, Ziessemer, Manterola, Allende-Salazar, Francisque-Michel, Orixo, Ariztimuño, Lafitte, Gil-Reicher, Lafon, Veyrin, Estornés, Onaindia, Michelena, Etxaide, Villasante, Akesolo, San Martin, Zaharra, Irigaray, Biriatu, Sarasola, ...eta besteak. Itxaron daigun orain zer esaten deuskuen gure kulturatik kanpokoak, edo behintzat gure hizkuntza ez dakienak. Mundu guztiko literaturerako lorasortaeetan aipatzeko neurririk emongo ete-deutsee gure Detxepare-ri? Baietz uste dot nik, bere maila bat ba daukala olerki batzuetan.

Oparotasun haundiagorik agertzen ez jakun bitartean Detxeparek euki eban bizitza ziurtasunez jakiteko, hor daukogu berak idatzi eban olerki-lana, aztertzeke, eta ez da arlo estukoa. Gaietz ugaria eta aberatsa da, haiñ horrialde gitxiko liburutzko batentzako. Noraino da Renazimendukoa Detxepare, eta noraino Erdi-Arokoa?. Noraino, eta zertan bata eta bestea, izate eta esate aldetik?

Hitez-hitz eta araudibidez aztertu dira hizkuntzaren aldetik *Linguae Vasconum Primitiae*-ko idatziak, baina arduraz eta sakontasunez salatu gara literaturaren aldetik iritzi-neurririk zuzen eta zorrotz berea emoten lehenengoz agertu jakun olerkariari? Bere denborako eta lehenagoko literatura zaharretako eragiteak noraino ikutu eutsoen? Bere pentsaeraren egitama be erabagi ta mugatu leike, asmuz baino obeto azalpen zehaztauekaz. Amabost eta amaseigarren gizaldietako literaturalarientzako eginbearra da hori; egin leikeana eta egin behar dana.

Olerki batzuen jatorritasunen auzi arloa be ez dago erabakita orainginoko, kontuan artzeko iritziak badaukaguz be. Ijak-eta herriko-literaturan irauñ dabeen L. V. P. liburu honetan agertzen diran kantu batzuen galak, zatika bada be, aurkitu diran leku batzuk ba dakiguz, eta uste ta iritziak azaltzeko oinarriak emoten dautzoz gaiari.

Eraketak egiteko modu barriak daukeez artezkariek gaur. Detxepareren olerkietan badago nun arakatu eta gai barriak aurkitu. Gauza batean sinisten dot: Detxepare ezagutzen bakarrik hasi gareala, eta ba dagoala lekua urrengokoentzako, bierra egin gure badabe.

Azken bako urteetarako bizitza opa deutzagu «Txertoa Sorta» barriari, Euskal Jakintzaren onerako.

N. Alzola